

Gereta'ko gizonak, baiña, eskuak lotuta eukázalako, «Aitarenik» ezin egin ebala ikusi ebanean, «Jesus» izena deadarka esan eban.

Eta orduantxe jazo zan aundiena: «Prakagorriak», JESUS izena entzuteaz batera, garrazi baten deadarka asita, jolas eta dantza guztiak bertan-bera itxiaz, arrapalada baten artzulatorantz abiau ziran; bidean «laugiñan» joiazala, auxe iñoela: «Gereta'ko gizon zirtzilla orrek yaukok errua... Orrexena dok errua... Orrexek apurtu yozak gure dantzak eta orrexek galdu yok gure alaitasuna...».

Eta ori esanda beste bagarik, «prakagorri» guztiak asarre-gorritan ke moltzoak atzean izten ebezala, amorruez beterik artzulatoratu ziran.

Gereta'ko etxaguna, ostera, «prakagorriak» amorruez joiazala ikusi ebanean, barre-zantzoka asita, etxerantzako bidean jarri zan. Eta gabeen etxera eldu zanean, ikusirikoaren barri bere emazteari zeatz-zeatz emon eutsan.

«Prakagorri» areik, txerrenak (deabruak) izan ei'ziran.

XI

ARTZAIÑA TA EPAILLA

Eun ardi ta adari baten jabe zan artzain morrosko bat, mendiegaleko txabola zaar baten bake-bakez bizi zan.

Artzaiña, bere artalde ederra lakorik ango inguruetan be ez egoala-ta, pozez beterik aurkitzen zan. Ardi bakotxak, urtean-urtean, batek be utsik emon bagarik, bildots biña ekarten eutsazan; eta orrez ganera be, esne, gaztae ta artule, eurakandik gauzarik asko artzen eban. Ori zala-ta, bera artalde ederrari begira, arropoztuta bizi zan.

Epaillaren azkenengo gabeen, artzain morroskoa, enparau gabetan lez, sutondoan aparitarako taloak egiten asi zan. Eta orretan ziarduala, aize biorraz batean, txabolako atakan abots miragarritz norbaitek «artzain, artzain!» deadarrez zirautsala entzun eban.

Artzaiña, alako abots bakanez egiñiko deadarra entzutean, ikaratu egin zan. «Zer eldu dok ona? —iñoan bildurrez beterik—. As-

paldion eldu ez danaren bat eldu dok gaur bertora, antza...».

Eta aterantz egiteko be adorerik ez ebalá, kanpoko deiari abots dardarez erantzun eutsan:

—Nor edo zer zara zu?

—Ni, aize-putzaren abots miragarria naz —erantzun eutsan mendian jira-biraka ebillen abotsak.

—Aize-putzaren abotsa zarala diñozu? Olakorik egundo ez dot entzun be egin. Eta... ordu onetan, zer arrano dakazu nire etxera? Ze barri dakazu, gero?

—Ona emen, ba: barri itun bat emotera natorkizu. Epail anker-ra, euri ta txingor, begietatik txinpartak dariola, zure artaldeko ardi guztiak ondatu gurarik datorrela natorkizu esatera. Oraintxe laster etorri be, barriz. Zure artaldea on eta eder euki nai-ba'dozu, zabiz arduraz ta marduraz...

Eta barri itun ori emon ondoren, aizearen putza bat-batez isilduta, mendiak zearkatzen ebazala, beste leku batera iraduz joan zan.

Alako berbak entzunda, artzaiña oldozkor jarri zan. Epailaren gomuteak berak bakarrik be ikara bizia emoten eutsan; eta bere artalde ederraz izango ete-zana gogotara ekarten, artega be artega jarri zan.

Alako baten, bere esturaldian, mendi-erpiñera igota, mendi-basoetako morroskoai dei egitea otu yakon. Eta mendi-gaillurretik deika ta deika ekinda, amar zantzo luze egin orduko, abea lakoxe amar mutil morrosko urreratu yakozan. Eta amar mutil sendo areik, artzaiñari bere deadarraren zegaitia jakin gurarik, ago batez esan eutsoen:

—Artzain, zer dala-ta egin dauskuzu dei? Zetarako bear gaituzu?

—Neure artalde ederra zaintzeko bear zaituet... Aizearen abotsak esan daustanez, Epail maltzurra, euri ta txingor, nire artaldeko ardi guztiak galdu gurarik dator. Ori dala-ta, nire artaldea eder eukiteko, zeuen laguntza bear dot; Epaila igaro arteko morroitza egingo ete-zeuskide?

—Gura aiña talo emoten ba'dauskuzu, bai —erantzun eutsoen mutillak.

Gerotxoago, Epaila —aizearen abotsak esan ebanez—, betozko illunez agertu zan. Eta ille guztian, egun-bitarteetan bein izaten zi-

ran aterrun txiki-txikiak izan ezik, euri ta euri, txingor eta txingor, eten бага jausi zan. Ori zala-ta, morrojak, euren ardurapeko artaldea zaintzearen, arazoz beterik ibilli ziran: bitarteko aterrun txikietan, ardiak basora atara, ta barriri miñutu bat baiño lenago, artaldea arrapaladan txabolara eroan bear izaten eben-eta.

Alan be, orraitio, morrojak zur eta bizkor ibili ziran ezker, Epailaren maltzurkeriak gora-bera, artaldeko ardi guztiak len bai-zen sendo ta eder gelditu ziran.

Epailla igaro ondoren, amar mutillak, artzaiñak aurrerantzean euren bearrik arean be ez ebala izango-ta, gura aña talo janda gero, euren lekuetara joan ziran.

Baiña mutillak alde egin ordukoxe, artzaiña, bere artalde ederrari begira-begira jarrita, barriri be arro-puztu egin zan. Eta, «onek dira ardien ederrak!» esanda, Epailari atzetik irri ta barre egiten asi zan.

Ori ikusirik, Epailla asarratu egin zan; eta artzaiñaren arrokeria gogor zigortzeko ustez, Jorraillari dei eginda, esan eutsan:

—Jorrail: ekazuz egun bi ta erdi, artzain arroko orri eun ardi ta begi kendu dagiodazan...

Ori entzunda, Jorraillak, bere lagun Epailak eskatu eutsazan egun bi ta erdiak berealako baten emon eutsazan. Orduan, Epail maltzurak, Jorraillak eskuratu eutsazan egunetan, euria, txingorra ta edurra errime jaurtiaz, artzain arroaren artaldea betiko ondatura itzi eban: eukazan ardi guztiak, goitik beerako ekatxak bata bestearen atzean il egin eutsazan. Eta artaldeko adar aundidun adari sendoak, barriz, itun aurkitzen zan bere ugazabari, esturaldian errekatik saltu egitera joiala, adar bataz arpegian jota, eskumako begia atara eutsan.

Orrenbestez, artzaiña illunago jarri zan. Eta ez ardi ta ez begi, naigabez beterik negarrez asita, Epailari barriri «aupadea» jaurtiteko adorerik arean be ez ebala gelditu zan.

Epailak, oster, artzaiña negarrez ikustean, barre ta barre egin eban: artzaiña baiño bera oraindiño askozaz geiago zala-ta...